

ELKARTASUN KILOMETROAK



Save the Children

TXOSTENA

Gida didaktiko hau txosten batek eta heziketa-etapa desberdinetako jardueraproposamenen txosten batek osatzen dute.

Espero dugu gida hau baliagarria izatea, informazioa ematea eta baliagarria izatea ikasleek uler dezaten zein garrantzitsua den egin behar duzuen ekintza hori, bizitzak salbatzeko balioko baitu.

Zuzendaritza:
Marisol Paniagua

Lankidetzak:
Marisa Ortega del Val

Artea eta maketazioa:
Germán Gullón (VALBHY)



1. AURKEZPENA

Elkartasun-kilometroak proiektua informazio- eta hezkuntza- edukia babesteko helburuz aurkezten dizugu gida hau.

Save the Children-i buruzko informazioa eta erraz prebeni daitezkeen gaixotasunei (hala nola, pneumonia) buruzko eduki teorikoa biltzen duen txosten bat ere topatuko duzu, arrazoiak testuinguruan jarritz, prebentzioarekin, eta nola efektu hilgarriak dituen erasandako haurrak pobrezian bizi direlako.

Txostenak hezkuntza-etapa bakoitzera bideratutako lan-proposamen batzuk ditu gelan egiteko, lasterketa egin baino egun batzuk lehenago. Horrela, ikasleek jakingo dute zergatik eta zertarako egin behar duten korrika, eta gehiago inplikatuko dira ekintzan.

Gainera, hezkuntza-komunitatea ere inplikatzeko lagunduko duten proposamenak ematen dizkizugu, guztiok elkarrekin haur-pneumoniaren aurka borrokatzeko.

Dokumentuaren amaieran, ikasturteetan zehar egin dizkiguzuen ohiko galderak aurkituko dituzue, baita ikastetxeak bildutako dirua nola sartu behar den azaltzen duen informazio gehigarria ere.



2. DUELA EHUN URTE BAINO GEHIAGO, HAURREKIN ARDURATUTAKO EMAKUME BATEK SORTUTAKO ERAKUNDEA

Neska-mutilak ez dira etorkizuna, orainaldia dira, eta eskubideak dituzte. Espainian eta munduan, gure erakundearen sortzaile den Eglantyne Jebb-en ondarea babesteko lanean aritzen gara: haurrek bizirautea, ikastea eta babestea. **Larrialdietan** neska-mutilak izan ohi dira kalteberenak. Guk euren beharrei erantzuten diegu eta entzuten zaiela ziurtatzen gara. Save the Children-ek haurren **parte hartzea** bultzatzen du eta, ekintza integralen bidez aldaketa iraunkorrak lortzen ditu euren bizitzetan, batez ere, kalteberenak diren eta iristen zailenak diren horietan.

Ziur gaude elkarrekin lan eginez gero, eta helburu horrekin, etorkizun hobea lor dezakegula, eta ez ditugula beste ehun urte bete beharko, ez delako gure beharrik izango.

Save the Children-i eta haurrekin egiten dugun lanari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, joan gure web-orrira:



3. ELKARTASUN-KILOMETROAK

Elkartasun-kilometroak balioak lantzeko hezkuntza-, kirol- eta elkartasun-proiektu bat da, jolas-ikuspegi batetik begiratuta, baina asmo handiko helburu batekin: ikastetxeak helburu baten alde parte hartzea, haur-pneumoniak erasandako neska-mutilei laguntzea.

Elkartasun-kilometroak eskola-lasterketa bat, eta lasterketa honetan korrika egitea bezain garrantzitsua da zergatik korrika egiten dugun ezagutzea. Elkarrekin kontzientziazten gara parte hartzeak zer-nolako garrantzia duen, guztiok onura ateratzen dugun proiektu baten parte izateko eta gehien irabazten dutenak zuen laguntzarekin salbatzen lagunduko diegun neska-mutilak dira.

Kirola eta elkartasuna geroz eta elkartuago daude, bi ekintzek haurraren garapenari laguntzen dion bizimodu osasungarri bat sortzen dute, eta **Elkartasun-kilometroak** lasterketak zuen ikasleen garapen intelektual, fisiko eta emozionalean ere lagundu nahi du.

Elkartasun-kilometroak lasterketa zeharkako modu batera begira daiteke hainbat curriculum-arloetatik eta pedagogia oso berritzaileekin (APS (ikastea eta zerbitzua)) edo bizimodu osasungarriak bultzatzeko arlotik.

XVI edizio hauetan, herrialde guztiko 6.000 ikastetxe baino gehiagoko 2.500.000 neska-mutilek eta gaztek baino gehiagok zapatilak jantzi, dortsala jarri eta korrika egin dute mila haur kalteberei laguntzeko.

Ikasturte honetan zuekin kontaktzen dugu **Kongoko Errepublika Demokratikoaren** moduko herrialde batean haur-pneumonia prebenitzeko eta sendatzeko elkartasun-uholdearen zati izateko.

Ez da erraza pneumonia gisako gaixotasun gogorak adin txikikoei azaltzea. Txosten honetan pneumonia zer den, zerk eragiten duen, haurrengan zein ondorio dituen, nola prebenitzen eta erraz nola sendatzen den azaltzen saiatuko gara. Tresna eraginkor bat izan dadin nahi dugu, eta ikasleen laguntzarekin gaia errespetu eta kontu handiagoz tratatzen laguntzeko balio izatea.



4. KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA: HUTS EGINDAKO HERRIALDE BAT

Kongoko Errepublika Demokratikoak izen asko eduki ditu, kolonialismoak, gehiegikeriek eta gerrek markatutako historia baten ondorioz. Kongoko Errepublika Demokratikoa, Kongo Demokratikoa, Kongo-Kinsasa eta Zaire gisa ezagutu dugu 1971 eta 1997 artean. Izena edozein duelarik ere, Afrika erdialdean dagoen herrialde oso handia da, Afrikako bigarren herrialde handiena. Herrialdea Lurreko emari handiena daraman bigarren ibaiak zeharkatzen du, Kongo ibiak, Zaire ibaia ere deitzen denak. Edonola ere, ibai hori protagonista da herrialdearen historian, kulturen eta ekonomian, Josep Conrad-en “Ilunpean bihotzean” eleberrian bezain protagonista, giza miseria hoberen islatzen jakin duen liburuetako batean.

Herrialde izugarri handi honetan **90 milioi pertsona** baino gehiago bizi dira, eta natura oparoa du baliabidez eta aberastasunez betea, baina herrialde pobreenen artean egon ohi da **Giza garapenaren indizean**. Kongo ibaiaren arroaren zati handiena hartzen du, eta Laku Handien eskualdera arte zabaltzen da. Ondorioz, tresna eta azpiegitura egokiekin, eta ura modu egokian banatuta, ez litzateke ura mugatu eta inportatu beharko, eta kongotar guztientzat adina energia elektriko sortu ahal izango litzateke. Alabaina, UNICEFek emandako datuen arabera, **herritarren % 50ak ez zuen edateko urik 2015ean**.


Kongoko Errepublika Demokratikoa baliabide mineral asko dituen herrialdea da, baina aberastasun horrek ez die onurarik ekarri herritarrei, **kolonialismoa** besterik ez die ekarri. XIX. mendean, Belgikako Leopoldo II.a erregerena izan zen, eta 5 eta 10 milioi gizon, emakume eta haurren hilketa ekarri zuen. Herrialdeak gerra zibil bat ere jasan behar zuen, koltan mineral madarituak eragindakoa. Bigarren Mundu Gerraz gerotik izan den bigarren gerra bortitzena finantzatzeko balio izan baitzuen. Gerrak 4 milioi hildako utzi zituen.

Indarkeria etengabekoa da. 2019an, 1,7 milioi pertsonak euren etxeak utzi behar izan zituzten ekintza militarrek, enfrentamendu zibilek eta talde armatuen erasoek behartuta. Talde horietako asko 15 urtez azpiko adin txikikoz osatuta zeuden gehienbat. Haur-soldadua deritzenak eta eskolak helburu militar bihurtu dira. Azken borroketan, 400 baino gehiago suntsitu dira. Eskola gerrarako beste arma bat bihurtu da azken urteetan.

Baliabide mineralak ez dira herrialdeko aberastasun bakarra ordea; kultura ere handia dute. 242 hizkuntza hitz egiten dira lurralde osoan, baina analfabetismo-mailak % 60 gaintzen du. Hezkuntza hobetzeko ahaleginak egin badira ere, Afrikako gobernuek gaintitzen ez duten ikasgaia izaten darrak hezkuntzarenak.

Herrialde honek gauza askoren lehen postua du: Afrikako bigarren herrialde handiena da, munduko bigarren ibai emaritsuen du eta koltan gehien ekoizten duen herrialdea da, baina datu horiek ez die ezer onik ekartzen, **herritarren % 63 egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi delako**.

Bi talde kalteberenak emakumeak eta haurrak dira. Emakume jaiotzeko munduko bosgarren herrialde txarrena da.



Haurdun dauden emakumeen

EI 57%

anemikoak dira.

1.152

emakume baitzen
dira eta indarkeria
jasaten dute egunero.



1.000 emakumetatik

25ek

15 eta 19 urte artean
izaten dute lehen haurra.



15 urte edo
gehiagoko nesken

% 67k

zailtasunak ditu irakurtzeko
eta idazteko.



Emazte guztiek

senarraren baimena behar dute emakumeari
ardura dion edozein legezko ekintza
gauzatzeko.

BIZIRAUTEA ZAILA DA

Kongoko Errepublika Demokratikoko haurren hilkortasun-adierazleak erakusten digu neska-mutilentzat zaila dela bizirautea.



Bizirik jaiotzen diren

1.000tik 88

izan zen bost urtez azpikoen
hilkortasun-tasa 2018an.



Eskualde batzuetan bizirik jaiotzen diren

1.000tik 161


da tasa hori. Jaiotzen zaren tokiak eragin
handia du. **Espanian, esaterako, 1.000**
haurretatik 3 besterik ez dira hiltzen.

Pneumoniaren moduko gaixotasun bati buruzko datuak aztertuz gero.

Bizirik jaiotako 1.000tik bost urtez azpiko 11 pneumoniak jota hil ziren 2018an Kongoko Errepublika Demokratikoan. Pneumoniak bost urtez azpiko 40.000 ume hil zituen 2018an, 5 hour baino gehiago orduko. Zenbaki oso handia da garaiz harrapatu eta antibiotikoen tratamendu batekin erraz sendatzen den gaixotasun baterako.

ZEIN IZAN ZIREN PNEUMONIAK JOTA HIL ZIRENEN ARRISKU-FAKTORE NAGUSIENAK?

- **% 55 haur-desnutrizioak eraginda.** Haurrak oso ahul daude, eta ez dute gaintzen beren gorputzak kutsatzen dituzten birusak edo bakterioak.
- **% 42 erregai solidoek etxeko airea kutsatuta.** Berotzeko edo janaria prestatzeko unean, etxean sortzen diren gasak murriztuta milaka neska-mutilen bizitzak salbatuko lirateke. Datu horrek begi-bistan uzten ditu pobrezia eta desberdinkeria.
- **% 18 hazkuntzako atzerapenak eraginda.** Afrika guztian bost urtez azpikoetan oso presente dagoen elementu bat.



Beharrezkoak dira osasun-sistema solidoagoak eta zuzenagoak pneumonia prebenitu, diagnostikatu eta egoki tratatzeko, eta haurrei osasunaren oinarrizko giza-eskubidea emateko. Alabaina, osasunean egiten den gastuari buruzko datu batzuk berrikusiz gero, ulertuko dugu ezinezkoa dela familiek osasun- eta elikadura-zerbitzuak, txertoak eta beharrezko sendagaiak eskura izatea.

- **Gutxienez 86 dolar gomendatzen ditu NBEk** gastatu behar dituztela gobernuek pertsonako eta urteko oinarrizko osasun-zerbitzuak emateko. Kongoko gobernuek 3 dolar gastatzen ditu pertsonako osasunean. .
- **Gutxienez BPGren % 5 gomendatzen du NBEk** gastatu behar dutela gobernuek osasunean. Kongo Errepublikak Demokratikoa ez da % 0,5era ere iristen.

Kongoko Errepublika Demokratikoa adibide bat besterik ez da, baina haur-pneumoniak eragindako heriotzak herrialde pobreetan pilatzen dira, eta batez ere, munduko haur behartsuenetan eta marjinatuenetan.


5. ZER DA PNEUMONIA?



Pneumonia birikei eragiten dien gaixotasun bat da, bakterio, birus edo onddo batzuek sortzen dute, eta arnasa hartzeko arazoak dituzten haurrei erasotzen die gehien, haien birikak likidoz betetzen direlako eta likido horrek ez dielako normaltasunez arnasa hartzen uzten. Aire falta hori arrain batek arrainontzia hustuz gero izango lukeen itogura-sentsazioarekin konpara daiteke.

Pneumonia birus batek eragin dezake, begi hutsez ikus ezin daitekeen gauza txiki batek, eta birus hori biderkatu egiten da pertsonen gorputzean. Birusa ahotik edo sudurretik sartzen da, eta biriketan ezkututzen da. Oso txikia denez, mikroskopia elektroniko batekin soilik ikus daiteke.

Imajina ezazu! Birusa dutenak nekatu egiten dira, sukarra dute, eztula egiten dute eta arnasa hartzeko arazoak dituzte. Birusei izugarri gustatzen zaie pertsona batetik bidaiatzea, eta listuren bidez transmititzen da. COVID-19 koronabirusa da horren adibide garbi bat.



Pneumonia faktore desberdinek sortutako gaixotasun bakar bat bada ere, ez ditu ondorio berak mundu guztian. Haur bat herrialde batean edo beste batean jaio izanagatik sendatu egin daiteke ala ez. **Zergatik alde horiek?**

Pobreziak, bizitzeko baldintzek edo osasun-sistemak edukitzeak markatzen dute pneumonia gaixotasun tratagarri eta ondorio-gabekoa den ala haur baten bizitza balio duen.

FAKTORE HAUEK ERAGINA DUTE GAIXOTASUNAREN GARAPENEAN ETA ONDORIOETAN



1. Malnutrizioa

Malnutrizioa arrisku-faktore bat da, desnutrizio larria duen haur batek 9 aldiz aukera gehiago du pneumonia eta gisako gaixotasun infekzioso batengatik hiltzeko. Bestalde, **desnutrizioa tratatzen zaien haurren % 80 harekin lotutako beste gaixotasunetatik ere sendatzen da. Helburua haurren elikadura hobetzea da.** Baina haurren desnutrizioa ez da elikagaiak emanda soilik konpontzen. Haurren bizitza salbatzeko, herrialdeek lehen-arretako osasun-sistema sendoak behar dituzte, haurren elikadurari modu integralean ekin ahal izateko, haurren hazkunderari jarraitu eta nutrizio eskasarekin lotutako gaixotasunak ekidin ahal izateko.

Desnutrizioa tratatzen zaien haurren

EI 80%

harekin lotutako beste gaixotasunetatik ere sendatzen da.

2. Amagandiko edoskitzearen garrantzia


Pneumonia da jaioberrien guztizko heriotzen % 6aren arrazoia. Ama osasuntsuek erditu, ongi elikatu eta bizitzako lehen hilabeteetan ama-esnea eman zitzaizaien jaioberriak ez dira sartzen ehuneko horretan. Alabaina, bizitza-baldintzen eta pobrezia eraginez, herrialde pobretuetako amek ezin dituzte euren seme-alabak ama-esnearekin elikatu. Haurraren lehen egunetan amagandiko edoskitzea bultzatzeak, haren bizitza salba dezake.

Pneumonia da jaioberrien guztizko heriotzen

% 6aren

arrazoia.





3. Txertoak modu unibertsalean lortzea

Azken urteetan haurrak immunizatzearen ondorioz, haurren hilkortasuna nabarmen jaitsi da, eta urtean 2 edo 3 miloi bizitza salbatzen dira. Beraz, txertoak guztion eskura jartzea lehentasuna izan behar da gobernuentzat eta gizarte guztiarentzat. Txertoak eta sendagaiak ez dira luxu bat izan behar, baina pobretutako herrialde askotan ez dira merkeak izaten eta izugarria da milioika haur pneumoniaren aurrean babesgabe gelditzea, bizi diren tokian bizi direlako soilik. Nazioarteko komunitateak babesa eman behar die herrialde pobreenetako gobernuari txertoak ahalik eta prezio hoberenean lortzeko.

4. Kutsadura murriztea


Aireko kutsadura arrisku-faktore bat da. **Niger eta gisako herrialdeetan, pneumoniaz hildako haurren % 56ari egozten zaio faktore hori.** Afrika geroz eta gehiago ari da urbanizatzen, eta etxeetan erregai zikinak erabiltzen direnez janaria prestatu eta berotzeko, pneumoniak eragindako heriotzak gorantz doaz haurren artean.

Nigerren
**pneumoniaz
hildakoen**
% 56
kutsaduragatik
hiltzen da.



5. Ur garbia eta edangarria edukitzea

Higiene-ohiturekin batera pneumonia, beherakoa eta gisako gaixotasunek eragindako haurren heriotzak murriztu egiten dira. **Egiaztatu denez, eskuak xaboiarekin garbituta % 50 murrizten da pneumonia edukitzeko arriskua.** Saneamendu-sistemak hobetzeak eragin zuzena du neska-mutilen osasunean, eta lehentasun bat izan behar da gobernu guztientzat. Hain garatuta ez dauden herrialdeetan, 5 osasun-etxeetatik 1ek ez ditu higiene-baldintza egokiak, ez du ur edangarririk ezta saneamendurik ere.



Eskuak xaboiarekin
garbituta
% 50
murrizten da
pneumonia edukitzeko
arriskua.

6. Diagnostikoa hobetzea

Neurri honekin, haurrek pneumonia, beherako eta gisako gaixotasunak edukitzea prebenitzen da, baita horiek tratatzea ere. Horretarako, familiek osasun-zerbitzu hobeak eta handiagoak izan behar dituzte, tokiko osasun-agenteen garapenaren aldeko apustua, oinarritzko hornikuntzak eta trebakuntza egokia emanda, tokian-tokian gaixotasunak prebenitu eta trata ditzaten, eta horrela ospitaleratze gutxiago egingo dira eta gaixotasunaren eragina eta larritasuna murriztuko dira. **Kalkuluen arabera, munduan 18 milioi osasun-langile gehiago behar dira 2030erako**, eta horrela estaldura unibertsalaren garapen jasangarrirako helburuak lortuko dira.



6. SAVE THE CHILDREN-EK KONGOKO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOAN EGINDAKO LANA

Kongoko Errepublika Demokratikoa herrialde konplexua eta anitza da, eta erronka handiak ditu haurren bizirautea, hezkuntza eta babesaren lortzeko.

Guztira **13 milioi pertsonak behar dute giza-laguntza**, eta horietatik ia 8 milioi haurrek dira.

Save the Children-ek hainbat zentro nagusi ditu Kongoko Errepublika Demokratikoan: Ipar eta

Hego Kivu, Ituri, Mendebaldeko Kasai eta Lomami erdialdean eta Kinshasa ekialdean. Kongoko Errepublika Demokratikoko 26 probintzietatik seiretan gaude.

LEHENTASUNAK

nutrizioa, haurren babesaren eta larrialdiko hezkuntza dira Save the Children-ek lantzen dituen lehentasuneko arloak herrialde horietan. Desnutrizioak kausa-harreman estua duenez pneumoniarekin, desnutrizioa ezabatzeko lan eginez gero pneumoniaz eta erraz prebeni daitezkeen beste gaixotasunak hiltzeko arriskua murrizten da.



HELBURUA

511.000 haur baino gehiagotara iristea 6 probintzietan. Probintzia horietan biztanleak kalteberagoak dira ebola eta gisako gaixotasun beldurgarrien eta etengabeko indarkeriaren eraginez.

Programak:



Larrialdiko esku-hartzeak osasunean eta elikaduran: UNICEFek gidatutako erantzun azkarreko erantzun-mekanismo baten bidez eta bederatzigarren urtez jarraian Save the Children-ek parte hartzen duen programa hau alerta bat jaso eta osasun- eta elikadura-zerbitzu mugikorrek eskaintzean datza. Klinika mugikor horiek 85.386 laguni ematen diete arreta, eta horien artean 48.858 haurri. Eskualde horietan ez dago beste osasun-zerbitzurik eta indarkeriak eta gatazkek kalteberenetara iristea zailtzen dute. Kliniketan pneumonia, beherakoa eta gisako gaixotasuna artatzen dira, txertoa jartzen zaie eta nutrizio-programak babesten dira.



Nesken eta nerabeen babesa. Generoari, GIBari eta babesari buruzko elkarrizketa hezitzaileak ematen zaizkie 6.096 nerabe oso gazteri, eta horietatik % 51 neskak dira. Proiektu horri esker, gurasoengana ere heldu gara genero-arau positiboak lantzeko eta, epe luzera begira, emakumeenganako indarkeria gainditu ahal izateko.



Irakasleen Garapen Profesionalaren programa 6 probintzietan lehen eta bigarren hezkuntzako eskoletarako, zuzenean ikasleei eragiten dien proiektu honek maisu-maistrak ahalduntzen ditu, genero-ikuspegitik, indarkeria ezabatzeko, eta modu malguan moldatzen ditu edukiak eta irakaspenak hezkuntza-etapa bakoitzera, ezegonkortasuna, indarkeria eta eskola uztea hain sustraitua dagoen testuinguru batean.

Osasun-sistema integralak edukitzea, bizitzeko baldintza duin batzuekin eta elikadura egoki batekin, haurrak bizitzearen eta hiltzearen arteko mugarria izan daiteke. Baina horiek guztiak eskubide unibertsalak dira, herrialde aberatsenetan baditugunak eta herrialde pobretuetako biztanleei, baina batez ere, neska-mutilei falta zaizkienak. Eskubide horiek edukitzen lortzen laguntzea da gure helburua haurren aldeko erakunde garen aldetik eta, horretarako, gizarte zibilaren, erakundeen eta, zergatik ez, gure ikastetxeetako irakasleen babesa bilatzen dugu, Elkartasun-kilometroak eta gisako programen bidez; programa horietan protagonistak beste haur batzuei laguntzen dieten haurrak dira.

PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

Elkartasun-kilometroak programari esker, elkarrekin batera mobilizatu eta lan egin dezakegu Kongoko Errepublika Demokratikoko neska-mutilen alde, herrialde hartan pneumonia haurrak hiltzeko arrazoi izaten jarraitzen baitu.

Osasuna funtsezko oinarritzko eskubide bat da. Covid-19ak zaintzen beharra eta eskubide unibertsal hori bermatuko duen osasun-sistema sendo bat izatea zein garrantzitsua den agerian utzi dituen egoera bizi izan dute Espainiako hurrek.

Save the Children-ek lankidetzeta eta parte-hartzea bultzatu nahi ditu munduko neska-mutilen duintasuna bermatzeko.

Urteko une desberdinetan, curriculumaren eta ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren arabera, proposatutako materiala landu daitekeen egun adierazgarriak daude, hala nola, haurren eskubideen eguna, bakearen eguna, osasunaren eguna... eta egun horietan landu daitezke justizia, eskubide-berdintasuna eta duintasuna.

Helburuak

- Kongoko Errepublika Demokratikoko haurren beste errealitate bat azaltzea hezkuntza-komunitatean.
- Elkarrekin batera lan egitea haurren funtsezko eskubideak defendatzeko, eta pneumoniaren ondorioak arintzeko; haurren hilkortasunaren arrazoi nagusienetako bat delako.
- Bizitza duina izateko eskubide unibertsala eta haurren osasuna hobetzeko programan parte hartzea.

Edukiak

Kongoko Errepublika Demokratikoa, pneumonia, indarkeria, osasuna, gaixotasuna, ura, elikadurak, nutrizioa, ospitaleak, sendagaiak, txertoak, eskubideak, babesak, zaintza, justizia, segurtasuna, laguntza, esperientziak, pobrezia, marjinazioa, duintasuna, parte-hartzea...

Eskumenak

- Entzutea, enpatia eta ulermena
- Hausnarketa, elkarrizketa eta lankidetzeta
- Sormena eta adierazpena
- Talde-lana, negoziazioa eta parte-hartzea

Jarduerak diseinatzean, hezkuntza-maila desberdinetako curriculumeko **ikaskuntzara** doitzen diren hiru **prozesu**-metodologiko hartzen dira aintzat:

- **EZAGUTU:** informazioa entzuteko eta ulertzeko prozesua.
- **HAUSNARTU:** banako eta taldeko ondorioak ateratzeko analisi-prozesua.
- **PARTE HARTU:** komunitatearen aldeko ekintza eta sorkuntza arduratsua, xede gisa justizia eta aukera berdintasuna izanez.



«ZER GERTATZEN DA KONGO IBAIAN?»

Adina: 3-6 urte

35-45 min

PROPOSAMENA

Kongo ibaia, hango animaliak eta, bereziki, Joana igela ezagutzea. Joana oso arduratuta dago pneumonia gaixotasunarekin eta gure lasterketarekin Kongoko Errepublika Demokratikoko neska-mutilak laguntzea proposatzen digu.

MATERIALA

Margoak, paper jarraitua, animalien marrazkiak eta irudiak eta familien ekarpenak bilduko dituen Joana igelaren txotxongilo bat.



ZER EGIN

Kongo ibaia eta hango animaliak margotuko ditugu (10-15 min)

Irakasleak azalduko die ikasleei Kongo ibaia Afrika zeharkatzen duen ibai luze-luzea dela, eta horma-irudian marraztu duen Kongo ibaia margotzera gonbidatuko ditu haurrak. Ibaian eta haren inguruan animalia desberdinak bizi direla azalduz jarraituko du; besteak beste, igela, kokodrikoa, tximinoa, igaraba, katu-arraina edo koartza.

Joana igelak pneumonia du (10-15 min)

Haurrak borobilean jarriko dira eta irakasleak jakinaraziko die... Joana igela gaixo dagoela, arnasa hartzea kostatzen zaiola, eztula egiten duela eta sukarra duela... alegia, pneumonia duela... Ezagutzen duzue pneumonia?, ur garbiarekin, elikagai osasuntsuekin, aire garbiarekin eta sendagaiekin sendatzen den gaixotasuna da. Arraroa da Joana igelak pneumonia izatea, normalean, batik bat, Joana igela bizi den tokitik gertuko herrietako Kongoko Errepublika Demokratikoko haurrak gaixotzen direlako, eta askori kosta egiten zaielako sendatzea. Haurrek beren ezagutzei buruzko iritziak trukatuko dituzte.

Arnasa hartzea eta korrika egitea balioa emateko (15 min)

Irakasleak Joana igela lasai dezaten eskatuko dio taldeari, arduratuta baitago, bere herrialdeko ume askok pneumonia dutelako. Animatu neska-mutilak babestera, beste haur batzuk pneumonia gaindi dezaten. Arnasa lasai hartu eta botako dugu indarra emateko eta zirkuitu batean korrika ibiliko gara neska-mutil guztiei pneumonia sendatzeko. Ibilbidearen amaieran, Joana igelak familiak egindako ekarpenak bilduko ditu sendagaiak lortzeko eta neska-mutilentzat gune osasuntsuak eraikitzeko.

IRADOKIZUNAK

Jardueraren fase desberdinetan erabilitako denbora desberdina izan daiteke, irakaslearen eta parte-hartzaileen adinaren irizpidearen arabera.

AMAIERAN

Jardueraren amaieran osasuntsu, pneumoniarik edo bestelako gaixotasunik gabe eta bizi-baldintza onetan bizitzeko aukera duten neska-mutilek parte hartzeak nolako garrantzia duen azalduko da.



«BINÉKA TOSE»

Adina: 6-9 urte

50 min

PROPOSAMENA

Kongoko Errepublika Demokratikoan bizi den Binéka aurkeztea, taldean bizitza-esperientziez partekatzea gaixotzen direnean eta Binékari eta bere herrialdeko beste neska-mutil batzuei laguntzea bizitzako gabeziak hobetzen.

MATERIALA

Guraizeak, kartoi birziklatu biguna, errotuladoreak eta pinturak, grapagailuak eta grapak.

ZER EGIN

Binékaren bizitza (10 min)

Irakasleak azaltzen du: «Binéka Kongoko Errepublika Demokratikoan bizi da, Afrikan. Munduko herrialde okerrenetako bat da jaiotzeko, hurrek bizirauteko arrisku asko dituztelako (etengabeko indarkeria bizitzan, gerra, arpilatzeak eskoletan, suteak, desnutrizioa, gehiegikeriak...). Binékak 5 urte ditu eta 8 anaia-arrebetan gazteena da. Bere ama oso nekatuta dago, ez baitago elikagairik edo lasaitasunik, eskualde batetik bestera joaten dira segurtasun bila... Binéka ezularekin eta sukarrarekin esnatu da eta kosta egiten zaio arnasa hartzea, eskualdera klinika mugikor bat etorri da, eta pneumonia duela esan die».

Esperientziak partekatzen ditugu eta pneumonia ezagutuko dugu (10-15 min)

Irakasleak galdera batzuk egingo ditu: noiz gaixotu zinen azkeneko aldiz?, nork zaindu zintuen?, ospitalera joan zinen?, sendatu zinen?... galderak egin eta parte hartzaileek euren esperientziak partekatuko dituzte. Irakasleak pneumonia zer den badakiten galdetuko die.

Pneumonia ezagutuko dugu, eta gurekin Elkartasun-lasterketan korrika egingo duen Binéka izeneko txotxongilo bat egingo dugu (30 min)

Binékaren herrialdean pneumonia gainditzeko gure laguntza behar dute, ur garbia, elikagai osasuntsuak, sendagaiak, ospitaleak... behar dituzte. Laguntza behar dute osasuntsu bizitzeko, eta neska-mutilak pneumoniarekin ez gaixotzea. Horregatik, garrantzitsua da korrika egitea eta ekonomikoki laguntzea, Binékak, bere anaia-arrebak eta lagunak baldintza osasungarrietan bizi ahal izateko; ongizatearekin eta duintasunez bizitzeko eskubidea dutelako.

Irakasleak Binéka izeneko txotxongilo bat egiteko eskatuko dio ikasle bakoitzari, eta Elkartasun-lasterketera eramango dute txotxongiloa.



IRADOKIZUNAK

Txotxongilo-mozgarri erraza egiteko kartoi birziklatu biguna gomendatzen dizugu, burua, gorputza, bi beso eta bi hanka moztuko ditugu, eta enberrari grapatuko dizkiogu gorputzeko atalak, mugimendua izan dezan. Ondoren, apaindu Binéka txotxongiloa elkarrekin korrika egiteko.

Animatu talde argazki bat ateratzera zuen Binéka eta guzti, eta bidali Save the Children-i.

Ikasleen adinaren arabera, Binéka txotxongiloaren konplexutasuna desberdina izan daiteke. Jarduera moldatu egin daiteke, gelan edo online egin ahal izateko.

AMAIERAN

Isabel medikuak lasterketan parte hartzera gonbidatzen gaitu, Kongoko Errepublika Demokratikoan aldaketak lortzeko.



«ALDAKETA ARNASTEA»

Adina: 9-12 urte

55 min

PROPOSAMENA

Entzun Isabel medikuari eta sortu haren pertsonaia Kongoko Errepublika Demokratikoko haurrek behar dituzten aldaketekin konektatzeko, eta haur horien eskubideak (osasuna, etxebizitza, hezkuntza...) bermatuko dituzten eskubideak lortzeko.

MATERIALA

Kartoia, kola, guraizeak, margoak, birziklatzeko papera eta errotuladoreak.

ZER EGIN

Isabel medikuak egoeraren berri emango digu (10 min)

Irakasleak azaltzen du: «Isabel medikuak Kongoko Errepublika Demokratikoa ezagutzen du. Badaki hango haurren lehenbailehen behar dituztela toki seguruak eta indarkeriarik gabekoak. Elikatu egin behar dute eta bizitzeko bitartekoak hobetu behar dituzte, ur edangarria falta zaie, elikagai osasuntsuak lortu behar dituzte, saneamendua duten etxeak... Haur askok pneumonia dute, Espainian aise senda daitekeen gaixotasun bat. Parte hartu behar da gaixotasun horren ondorioz Kongoko Errepublika Demokratikoan haur gehiago hil ez dadin. Garrantzitsua da Kongoko Errepublika Demokratikoko familiek baliabideak eta bitartekoak izatea euren seme-alabak biziraungo dutela eta bizimodu osasuntsu bat izango dutela ziurtatzeko.»

Taldean hausnartuko dugu (10 min)

Irakasleak galdetuko dio gelako talde osoari: zein aldaketa arnastu behar dute Kongoko Errepublika Demokratikoko haurrek osasuntsu hazteko? Erantzunak arbelean idatziko dira, elkarrekin komentatu dituzten eta han utziko dira.

Sor dezagun Isabel medikua (30 min)

5 kideko lan-taldeak sortuko ditugu, eta kartoiarekin Isabel medikua egingo dugu, eta bere txostenean Kongoko Errepublika Demokratikoko familia guztiek arnastu beharreko aldaketak idatziko ditugu.

IRADOKIZUNAK

Jarduera moldatu egin daiteke online egiteko. Banaka egin daiteke, eta medikuaren audio- edo bideo-grabaketa bat egin daiteke iradokitako ekarpenekin.

AMAIERAN

Isabel medikuak lasterketan parte hartzera gonbidatzen gaitu, Kongoko Errepublika Demokratikoan aldaketak lortzeko.



«PNEUMONIA GAITZESGARRIA»

Adina: 12-15 urte

50 min

PROPOSAMENA

Ezagutu pneumonia eta aztertu taldean hurrek bizi dituzten bidegabekeriak lekuaren arabera, eta eraldatu bidegabekeria horiek duintasun eta eskubide. Islatuta gelditzeko, zabaltzeko gelako audio bat egin dezakezue.

MATERIALA

Boligrafoa, papera eta mugikorra (audioa grabatzeko).

ZER EGIN

Pneumoniari buruzko informazioa irakurriko dugu gelan (10 min)

Testua ozen irakurtzen da, behar den aldi guztietan: «Pneumoniak birikei eragiten die, eta arnasa hartzeko eta airea faltatzearen arazoak sortzen ditu. Gaixoak nekatu egiten dira, sukarra dute, eztula egiten dute eta arnasa hartzeko arazoak dituzte. Pneumoniak ez ditu ondorio berak mundu guztian. Pobrezia, bizi-baldintzak, osasun-sistema bat izatea eta gisako faktoreek markatzen dute sendatzen zaren ala ez».

Gela bost kideko taldetan banatuko dugu eta taldeen artean baieztapen hauek banatuko dira (10 min)

- «Gaitzesgarria da Kongoko Errepublika Demokratikoko haurrak pneumonia jota hiltzea, oso erraz senda daitekeen gaixotasun bat izanda».
- «Gaitzesgarria da Kongoko Errepublika Demokratikoan elikagai osasuntsuak, ur garbia, saneamendua eta osasun-zentroak ez dituzten herritarrak izatea».
- «Gaitzesgarria da gaizki elikatutako ama askok ezin ama-esnerik ematea jaioberriei, haien bizitza salbatzeko».
- «Gaitzesgarria da gobernuek txertorik ez eskaintzea; munduko lehentasunetako izan beharko luke».
- «Gaitzesgarria da pneumonia hilgarria izatea, haurrak pobrezian bizi direlako».
- «Gaitzesgarria da herritarrek ur garbi eta edangarririk ez izatea».
- «Gaitzesgarria da haur-malnutrizioa duten neska-mutilek pneumoniaren gaixotasuna ezin gaitzeszea».
- «Gaitzesgarria da etxeetako pobrezia pneumonia jota hiltzeko arrisku-faktore bat izatea».
- «Gaitzesgarria da familiek ezin txertorik eta, oro har, beharrezko sendagairik eskuratzea».
- «Gaitzesgarria da haur kalteberak eta baztertuak pneumoniagatik hiltzea».
- «Gaitzesgarria da osasun-zerbitzurik ez izatea».

Lan-talde bakoitzak egoera gaitzesgarri horri zerbait duin bihurtuko du (10 min)

Taldeek esaldiak duin bihurtuko dituzte hurren eskubideak babesteko (adibidez, «*Duina da Kongoko Errepublika Demokratikoko herritarrek elikagai osasuntsuak, ur garbia, saneamendua duten etxebizitzak eta osasun-etxeak izatea.*»)

Audio-grabaketa bat egingo dugu gelan (20 min)

Talde bakoitzak duintasun bihurtutako esaldi ba aukeratuko du eta argi irakurriko dute gelako audio-grabaketa bat egiteko.

IRADOKIZUNAK

Grabaketa hori ikastetxeko sare sozialetara karga daiteke #Esdigno (#Duinada) #CarreraSolidaria (#ElkartasunLasterketa) traolak erabiliz

Jarduera moldatu egin daiteke, taldean, banaka, gelan edo online egiteko

AMAIERAKO GALDERA

Uste duzu merezi duela lasterketa parte hartzeak gaitzesgarria duin bihurtzeko?





«NAHASTE-BORRASTE HANDI BAT»

Adina: 15-18 urte

40-50 min

PROPOSAMENA

Kongoko Errepublika Demokratikoko testuinguru orokorra ezagutzea, familien duintasunerako oinarritzko alde batzuk adostea taldean eta Giza eskubideak eta haurren berariazko eskubideak defendatzen diren argazki artistikoetan islatzea.

MATERIALA

Kongoko Errepublika Demokratikoaren testuingurua, boligrafoa eta papera, mugikorra edo argazki-kamera.

ZER EGIN

Lan-talde bakoitzean Kongoko Errepublika Demokratikoko testuinguru erraz bat banatuko dugu (10 min)

Irakasleak lan-taldeak sortuko ditu gelan eta testuingurua banatuko die:

- Indarkeria etengabea da herrialdean, enfrentamendu zibilak daude, talde armatuak, haur-soldaduak errekrutatzen dira.
- Herritarren % 60 baino gehiago analfabetoa da.
- Hurrek bizirautea zailena duten herrialdeetako bat da.
- Malnutrizioa hiltzeko arrisku-faktore garrantzitsua da.
- Ama askok ezin dituzte euren jaioberriak lehen hilabeteetan elikatu, ez daudelako osasuntsu eta ez dutelako elikagairik ama-esnean.
- Txertoek lehentasuna izan behar dute gobernuentzat, eta pobretutako herrialde askotan, herritar askorentzat garestiak dira.
- Haurrak pneumoniak jota hiltzen dira, elikagaiak, ura, saneamendua eta osasun-etxeak dituzten beste herrialdeetan erraz sendatzen den gaixotasun bat izanagatik.
- Ur garbia eta edangarria edukitzea funtsezkoa da; eskuak xaboiarekin garbituta % 50 murrizten da pneumonia edukitzeko arriskua.



Aska dezagun nahaste-borraste hau (15 min)

Ez dugu arazoren handitasuna erlatibizatu nahi, baina askotan gobernuek lehenetasun eta helburu oso argiak behar dituzte, beste interes mota batzuk kanpo utzita. Hori dela-eta, talde bakoitzari arazo handi hori ahalik eta gehien erraztea eskatzen diogu talde bakoitzari, eta Kongoko Errepublika Demokratikoko familia guztientzako oinarrizko hiru gai hautatzea.

Argazki artistikoetan islatzea (15 min)

Talde bakoitzari argazki artistiko bat egiteko eskatuko diogu, errespetuzkoa, eta aukeratutako funtsezko hiru lehenetasunetako bati zentzua eman beharko dio, gela bakoitzeko bat aukeratu beharko da eta ikastetxeko sare sozialetara igo beharko da #CarreraSolidaria (#ElkartasunLasterketa) traolarekin.

IRADOKIZUNAK

Jarduera taldean, banaka gelan edo online egin daiteke.

AMAIERAKO GALDERA

Lortu al dugu egindako irudietan oinarrizko eskubideak islatzea?





40 min

«PNEUMONIA»

PROPOSAMENA

Korrika egiteari zentzua ematea eta «pneumonia» hitza entzutean gelditzea; eta geldi egotea, erreleboak egitea edo pneumoniaren aurkako borroka» babesteko pankarta batekin korrika egitea.

MATERIALA

Folio baten tamaina zazpi pankarta zurezko hagaxkekin, eta idatzi hauekin: «Ur garbia», «Sendagaiak», «Ospitaleak», «Elikagai osasuntsuak», «Saneamendua», «Etxe garbiak», «Gune seguruak», «Txertoak».

ZER EGIN

Gimnasioan edo gune ireki batean korrika egingo dugu (5-10 min)

Irakasleak gelan trote lasaian korrika egiteko eskatuko die, eta «pneumonia» hitza esatean, guztiek geldi geratu beharko dutela. Errepikatu gelditzeko edo korrika egiteko txandak, hainbat unetan «pneumonia» esanda.

«Pneumonia» hitzak gelditu egiten gaitu (15 min)

Irakasleak pneumonia zer den azalduko du. Biriketako gaitz bat da, Kongoko Errepublika Demokratikoko haur askori eragiten diona. Parte hartzaileek «pneumonia» entzuten dutenean geldi mantenduko dira besoak zabaldua, eta irakasleak pneumonia babesteko emandako mezuak («Ur garbia», «Sendagaiak», «Ospitaleak», «Elikagai osasuntsuak», «Saneamendua», «Etxe garbiak», «Gune seguruak», «Txertoak») dituztenak soilik hasiko dira berriro trotean.

Beharrezko hitzek mugitzen gaituzte (10-15 min)

Geldirik daudenek besoak zabaldu behar dituzte «pankartak» jasotzeko (isilik), eta korrika dabiltzanak, berriz, «pankarta» hori pasatu diezaiekete ikaskideei, ala ez, erreleboak egin ditzakete eta korrika ere bai. Irakasleak noiznahi esan dezake berriro «pneumonia» eta pankartak ken diezazkieke korrika dabiltzanei dinamizatzeke, errepikatzeke edo dinamikari berriro ekiteko.

IRADOKIZUNAK

Jarduera isilik egin behar da. Jarduera errepikatu egin dezakegu, eta emaitzak desberdinak alderatu. Irakasleak txanda bat egingo du hobeto nola sentitu diren adierazteko, geldituta ala korrika pankartarekin?, erreleboak egin dituzte pankarta partekatuz?, uneren batean iritsi dira guztiak batera korrika egitera?

ELKARTASUN-LASTERKETARI BURUZKO OHIKO GALDERAK



Zein dira babesleak?, enpresak lortu behar ditugu?

Babesleak, normalean, ikasleen familiako kideak (aita, ama, aitona-amonak...) eta euren ekarpena txikia izan daiteke. Zenbat eta babesle gehiago, orduan eta sentsibilizazio handiagoa lortuko da eta emaitza hobea izan da.

Lasterketa egun jakin batean egin behar da?

Ez, ikastetxeari hoberen datorkion egunean egin daiteke lasterketa. Jaiegun eta egun dibertigarri bihurtzeko, baina solidarioa izateari utzi gabe.

Material gehiago eska dezakegu parte hartzaile gehiago baditugu?

Bai, material gehiago eska dezakezue carrera@savethechildren.org helbide elektronikoaren bidez edo telefono bidez. Egun gutxi barru jasoko duzue ikastetxean.

Ikasleen dirua jasotakoan nola entregatu behar diot Save the Children-i?

Babesleen dirua bildu ostean, ikastetxeak kontu honetan sartuko du dirua:

BANCO SANTANDER
ES55 0049 1837 5620 1024 9000

Transferentzia bat egin daiteke edo eskudirutan sar daiteke.

Eskudirutan sartuz gero, arazoak izan ditzaket?

Banku-erakundearen bulegoaren araberakoa da hori. Joan baino lehen, gure webgunea bisitatzea gomendatzen dizuegu. Bertan, zenbait aholku eta dokumentu lagungarri dituzue bankuak dirua sartzeko ukatzea ekiditeko.



savethechildren.es/actualidad/ya-tengo-mi-recaudacion-ahora-que

Bildutako dirua beste banku-erakunde batean sar dezakegu?

Beste banku-erakunde batzuetan ere baditugu kontuak. Egoera horretan bazaudete, jarri harremanetan Ikastetxeetako programen sailarekin, eta dirua sartzeko beste banku-kontu batzuk emango dizkizuegu eta zein urrats jarraitu behar dituzuen ere bai.

Dirua sartzeko duen ikastetxearen izena adieraztea garrantzitsua da?

Bai, oso garrantzitsua da **izena eta herria** jartzea. Horrela, ikastetxerako eskerrak emateko diploma bidal dezakegu, eta hezkuntza-komunitate osora ere hedatu daiteke eskertza hori.

Zalantzarik izanez gero, non eta norekin ebatz dezakegu?

Ikastetxeetako programen sailarekin jar zaitezke harremanetan:

Tel.: 91 513 05 00



carrera@savethechildren.org
sol.paniagua@savethechildren.org (Marisol Paniagua, programen koordinatzailea)
nieves.garcia@savethechildren.org (Nieves García, ebaluazio-teknikaria)

Elkartasun-kilometroak eskola-umeak Afrikako herrialde pobretuetan bizi diren neska-mutilen kalteberatasun-egoerara gerturatzen dituen proposamena da, Save the Children-ek egiten dituen haurren biziraute-proiektuetarako funtsak lortzeko asmoz, eta haurren eskubideak ezagutarazi nahi dira, gida honetan aurkezten diren proposamen didaktikoen bidez.

Laguntzailea: **ctt**
Express

**BIZIRIK IRAUN
IKASI
BABESTUTA IZAN**



Save the Children